[b] BARREN
ELGOIBARKO ASTEKARIA
532. zkia.
XIII. urtea
2005eko ekainaren 3a



## Manolo Gurrutxaga

# «Gibeleko transplantea egin eta gero 7 urte ditudala esaten dut»

[ **ERREPORTAJEA** ] ASTE BERDEA 05 • [ **KILIBARREN** ] MINTZALAGUNAK


ikastaro trinkoak uztailean
izen ematea: ekainaren 24a baino lehen
ILS
HIZKUNTZ SOLUZIOAK
alemanez, frantsesez, ingelesez, eta italianoz
ekainaren 4tik uztailaren 29ra (goizez eta arratsaldez)
66 ordu (47 ordu taldekako klaseetan eta 19 multimedian)
Informazioa:
tel. 943 744040
faxa 943 741654
e-mail: ils@ils.es
INDUSTRY LANGUAGE SERVICES


ASTE BERDEA'05
Uztailak 3
Deba ibaia ezagutu
Parte hartu eta lagun gaitzazu Deba ibaia aztertzen. Goiza baino ez duzu behar izango. Ezagutu ezazu ibaiaren flora eta fauna (urkiak, haltzak, zozoak, txantxangorriak...), eta ikas ezazu gure ibaiaren ingurumen-egoera aintzat hartzen. Horretarako irteera gidatua egingo da eta Kilimon, Sagar-Erreka, San Lorenzo, estuarioa, eta abar ezagutzeko gonbit egiten dizugu.
Izena emateko azken eguna ekainaren 23a izango da.
Irteerak uztailaren 3an, igandea, izango dira. NAHITAEZKOA DA IZENA EMATEA.
INFORMAZIOA
Tel.: 943 820110 • e-mail: agenda21@debegesa.com
INOBE



# ZOZOAK BELEARI...



**ALAITZ VIVES**

Egunero ikusten ditut lanetik etxerako bidean autoan pasatzen naizenean.

Duela lau urte, sasoi honetan bertan ikusi nituen lehenengoz. N-634ko bidegurutzearen tunelpean, bi neska gazte, pretil-gainean eserita. Elkarrekin berriketan batzuetan, ondoan geratzen zaizkien auto gidariekin hizketan besteetan. Eskuarekin keinuak eginez autorenbat gelditzen ere ikusi izan ditut inoiz. Sarritan bidegurutzetik gertu dagoen gasolindegian egiten dut topo beraiekin. Freskagarrirenbat eta merixendatzeko zerbait erosi eta eskuetan plastikozko poltsa bana dutela itzultzen dira bidegurutzeko tunelpera. Hala ere, udazkenarekin batera desagertu ohi ziren. Arratsalde batean pasa, eta hara! Falta. Orduan jakin nuen uda sasoia pasatzera Europako mendebaldetik etorritako unibertsitateko ikasleak zirela. Halaxe zioten orduko egunkariek behintzat. Aurten, hala ere, ez dute ikasturte makala pasatu. Negu osoa N-634ko bidegurutzearen tunelpean. Eguna joan eta eguna etorri. Edurra ala izotza. Gaur arratsaldean ere, hantxe ikusi ditut. Eguzkitan eserita, berriketan. Gaur sei emakume ikusi ditut. Bidegurutzeko tunelaren ostean auto bat dago. Barruan gizon bakarra. Gizon bakarra dozena erdi emakumeren xoxak kontatzeko.

Arratsaldero nire munduak beste mundu honekin egiten du talka Unai. Eta ezin dut soinua errekonozitu.

> **«Egunero ikusten ditut tunelpean, bi neska gazte pretil gainean eserita»**
> ALAITZ

> **«Hamburg-eko bi kaletan baimendua dago prostituzioa»**
> UNAI

**UNAI VILLENA**

Pasa den asteburuan Hamburg-en izan nintzen bisitan. Bertako bi kaletan prostituzioa baimenduta eta erregulatuta dago. Arratsaldeko 8etan, portutik gertuko Mc'Donalds baten atarian hasi eta kale osoa bete arte, 20tik gora neska gazte. Neska ikusgarriak ziren eta bertatik pasatzen ginen turistoi hurbiltzen zitzaizkigun. 50 euro txortaldia. Alemaniar peto-petoak ziren gehienak; diotenez, Alemaniar Errepublika osotik bertako unibertsitatera ikastera joandako neskak. Ez zegoen gizonik auto baten barruan zain haien xoxak kontatzeko. Inork behartu gabe zeuden han. Askok gerriko poltsa zeramaten irabazitako dirua gordetzeko. Diru horrekin modako soinekoa erosi ahal izango dute, ikasle pisuko alokairua ordaindu, edo auskalo zer. Lanetik etxerako bidean egunero kale horretatik pasako bazina, zure munduak mundu harekin egingo luke talka N-634ko bidegurutzeko tunelpekoarekin bezain bortitz, Alaitz. Egunerokotasunean, gure munduarekin batera ko-existitzen diren mundu asko daude, eta errealitateak aurpegi ezberdin asko ditu. Zenbakaitzak diren arren, askorentzat ikustezinak dira, eta beste asko errealitatetik errealitatera saltoka bizi gara. Bizitzak bidegurutzeetatik pasarazten gaitu etengabe. Eta han ikusitakoak gure munduarekin "txoke" egin arren, berdin-berdin jarraitzen dugu aurrera, hurrengo bidegurutzera arte.

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

> “NIRE ERREPUTAZIOA GALDU DUT. BAINA EZ DUT FALTA SENTITZEN”
>
> Mae West

## Jose Luis gurea

Goizeko zazpiak. Iratzargailuak Pl! Pl! Pl! egin du, baina Jose Luisen ametsak JI! JI! JI! Lehia gogorrean baitaude azken segundora arte, arbitroak txistua jo arte. Berandu da, mugitu! Jose Luisek iratzargailu bi ditu: bata automatikoa da, eta argi indarrez funtzionatzen du, baina besteak hots propioa du: Lide. Gaileta gehiagorik nahi duzu? Jose Luisen ametsak askotan urdinak eta zuriak izan ohi dira, eta Nihat itxura hartzen dute; baina bestetan, gorriak eta zuriak, eta orduan ostikadak eta txistuak tartekatzen dira. Baina dena ez da futbola Jose Luisen munduan: politika ere badago. Jose Luis bere aitona bezala komunista da, eta ukabila gora altxatzen du garbi gelditzeko. Dena den, azken bolada honetan ez dakigu ideologiaz ez ote den aldatu: sarri askotan elizara joaten da, eta bertan Aita gurea zeruan zaudela... abesten du. Sasoi batean buru handiek ematen zioten beldurra, baina orain ez, antza: Ez duzu sinesten, ezta? Esaten du ez oso konbentziturik. Beldur handia beltzek ematen diote, baina ez Afrikatik etorritakoek. Horrelakoekin oso ondo konpontzen da: horrelakoei Merke eta ona! esaten die irribarrea aurpegian. Bestelako beltzei die beldurra: merkatua dela, bestea dela herritarren ametsak zapuztera datozen jantzitako beltzei. Horrelakoei izua: Egurra ematen dute, ezta? Eta eskuaren keinua erabiltzen du, badaezpada, hitzek esandakoa hobeto ulertzeko. Neskak ere egoten dira Jose Luisen ametsetan; oso politak gainera: errubiak, beltzaranak..., eta dirudunak. Muturra garbitu! Esneak utzitako bibotea garbitu, eta erdi lotan oraindik autobus geltokira joan da, Jose Luisek armaginen herrian egiten baitu lan. Eta hantxe izango ditu zain:Vicentito, Imanol.... Trinidadeak atzean gelditu dira, baina laster San Joanak etorriko dira, eta orduan elgoibartar-eibartar hauek festa izango dute, eta Errealaren inguruan urte osoan adarra jotzen ibilitakoei ziria bueltatuko die Jose Luisek: Bihar lanera, ezta? Ni ez. Izorra zaitez! Jose Luis onez-onean ona da, baina haserretzen bada... maitagarria.

**Juan Luis Mugertza**

## Eskerrak

Pilar ikastetxeko ikasle eta irakasleok, joan den maiatzaren 28an ospatutako Gurasoen Festarako bidalitako garaikur eta opariengatik, eskerrak eman nahi dizkiegu ondoko erakundeei: Tefrika, Mekanosa, Debape, Casa Galicia, Benito Harategia, GER S.L., Lasercom, Cometel, Kutxa Elgoibar, BSCH, Caixa, Barola S.L., Cordón Vilarchao pinturak, Astigarraga Kirolak, Urasandi Okindegia, Eroski, Dori, Usatorre taberna, Iriondo taberna, Jai-Alai taberna, Urkiola taberna, Urasandi karrozeriak, San Pedro jatetxea, Rosa liburudenda, Baskorrent, Beristain, Bukatu mekanizatuak, Alfa eskulturak, Euskotren, Intxausti, Vasconia, Mariette, Txiriboga eta Diario Vasco.

**Pilar ikastetxeko ikasle eta irakasleak**

## Publizista berria



Albiste onak ditugu Barrenen. Amaia Erkizia publizitate arduraduna haurdun dago eta laster jaiko da bere alabatxoa. Hori dela-eta, Amaiaren ordezko lanak egiteko gure artean da Eider Iriondo. Ilusioz ekin dio lanari eta ziur gaude bezeroek eta herritarrek esker onez hartuko dutela gazte elgoibartar hau.

E-POSTA
**barren@elgoibarkoizarra.com**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia.**

[b]arren

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Jasone Osoro KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Uxue Alberdi, Mikel Cornejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Esther Gurrutxaga, Iban Urizar, Kokoe K.E., Urruzuno, Unai Villena, Alaitz Vives ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.300 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

## KEXAK



• Herritar batek esan digunez, San Pedro auzoan ez dago zaborra birziklatzeko zabor-kontenedorerik: "Melitongo zubitik aurrera bizi garenok ez daukagu zaborra birziklatzeko kontenedorerik, zabor organikoa botatzeko kontenedore berdeak daude bakarrik, eta paperarena, plastikoarena eta kristalarena falta dira. Gu lehen kalean bizi ginenean birziklatzera ohituta geunden. Auzo honetara etorri ginenean, zaborra birziklatzen genuen etxean, baina gero birziklatutakoa botatzeko kontenedore desberdinak ez genituenez, ohitura on hori galtzen joan gara. Gure auzoan kontenedore horia, urdina eta beirarentzako den berdea gutxienez jartzea eskatuko genuke".



• Herritar batek esan digunez, Trenbide kalean aparkatuta egoten den azkenengo autoak aparkamentutik ateratzeko ikuspena murrizten du: "Aparkamentutik ateratzerakoan autoren bat errotondatik hain gertu aparkatuta baldin badago, errepidetik datozen autoak ez dira ikusten, eta talka egiteko arriskua dago eta, gainera, Trenbide kaletik autoak ziztu bizian ibiltzen dira... Irtenbidea erraza da: toki horretan aparkatzea debekatzea, edo Trenbide kalean polikiago ibiltzeko zebrabideak jartzea. Ezbeharren bat gertatu aurretik egitea komeni dela iruditzen zait".

## TXALOAK

• Erratzu Bertso Eskolak hiru ikasle txalotu nahi ditu Bat-Bateko Bertso Txapelketako finalera iritsi direlako: "Zorionak Danel Mendibil, Mikel Arrieta eta Mikel Olaizolari txapelketako finalera iritsi zaretelako. Zorionak eta jarraitu horrela!".

• Futbol zaletu batek Kadete mailako futbol taldea txalotu nahi du denboraldi bikaina egin duelako: "Bihar irabazten badute mailaz igoko dira. Seguruenik igotzea lortuko duen Clubeko talde bakarra izango da, eta txalo bat merezi dute, bai jokalariek, entre natzaileak eta animoak ematera joaten diren guztiek. Bide batez, herritar guztiei eskatuko nieke bihar Mintxera joateko, taldea animatzera".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 **ELGOIBAR**
☎ 943 74 41 12

LARRAÑAGA AUTOESKOLA
Tel: 943 74 10 11

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Zatoz informazio eske!



# URRUZUNOREN luma

## Ezkutuko unibertsoa

Nonbait irakurri nuen ezkutuko idazleek unibertso berezi bat osatzen dutela. Ez dute inoiz idaz leihaketarik irabazi, ez da inoiz euren testurik argitaratu, baina tinko eusten diote idazteari bizitzari denbora apurrak lapurtuz. Noizbait idatzi duenak badaki zer den loari kendutako ordu astunen pisua eustea, etxean idazten geldititutako larunbat gauak, edo igande arratsaldeak. Badaki zer den alperkeriari uko egin eta burua nekaaraztea, maiz fruitu garbirik lortu ez arren. Eta inork zergatik idazten duen galdetuko balio, ziur ez lukeela erantzuten asmatuko.

Lasaitu egiten nau ezkutuko unibertso hori existitzen dela jakiteak, dena argitaratua, neurtua eta artxibatua ez dela jakiteak, idatzi dituenak ez beste inork irakurri dituen testuak badaudela, deskubritzeko zain, lurperatutako altxor txikiak bailiran.

**Iñigo Otaño**



# BAI ESAN?

**AMAIA NOGERO**

KONTSUMITZAILEEN ARRETARAKO BULEGOKO TEKNIKARIA

*Elgoibarko Merkatu Plazan Bezeroen Arretarako Bulegoa dago. Bertan, kontsumitzaileek beren kexak azaldu edo kontsultak egiteko aukera daukate. Bertako teknikariarekin hitz egin dugu, herritarren kontsultak zein diren ezagutzeko.*

• **Zeri buruzko kexak eta kontsultak dira gehien jasotzen dituzuenak?** Iaz 504 informazio kontsulta eta 21 kexa jaso genituen. Kontsulta gehienak etxebizitzari buruzkoak izan ziren, 224 guztira. Hau da azken urteotan gairik garrantzitsuena, baina telefonia asuntoak ere asko egin du gora, guztira 60 kontsulta izan genituen, eta kexa gehienak ere alor honetakoak izan ziren.

• **Zein motatako kontsultak izaten dira?** Etxebizitzen kasuan kontratuei buruzko galderak egiten dizkigute. Inbertsio handia da, eta saleroste edo alokairu kontratuak zuzenak diren galdetzen digute. Telefoniaren alorrean, sakeleko telefonoei buruzko garantiak, konponketak eta kontratuei baja emateko galderak izaten dira.

• **Udari begira, kontsumitzaileei laguntzeko kanpainarik jarriko al duzue martxan?** Bai, bidaieri buruzko kanpaina aterako dugu: nola ordaindu, fiantzak, edo ordaindu osteko baliogabetzeak nola egin...

## komikia



# [AKORDATZEN NAIZ]



**MIREN VALLEJO**
1923an jaioa

## «Telebisiua»

Txutxumutxuak gustatzen jataz telebisiuan. Zertzuk esaten diran! Bizimodua albrebestuta dago!

Telebisiotik *Goenkale* ikusten dot. Martin ere politta botatzen dabe. *Sorginen Laratza* ere ikusten dot, baiña batzuetan etxata gustatzen. Bat dago gustatzen etxatana, kalian galdezka ibiltzen dana: haura etxata gustatzen. Ikusi izan dot Anoetan ere jendiari galdezka. *Ez hadi arrimau hona, bestela...* pentsau izan dot.

Gehixen bat ETB-1 ikusten dot. Gero ETB-2 ikusten dot, Bilbokua. Dana hango notizixak ematen diguez, barren. Baten batek esaten diue, eh? Han bakarrik esaten dabe *El elgoibarrés ha metido gol, El elgoibarrés ha hecho un pase de esto...* Hori ez dauke ezkutatzeko, Etxeberria, baiña bestela... Bilboko kontuak, alde haundixakin.



Gaiñera, aspaldi honetan bastante programa serixuak-eta.

Zenbat bider esaten dot, gure amama eta aitxitxak bizi ziran ba ez radixo ez telebisio, ez ezer. Eta gaur... pertsona bat baino gehixago ezingo litzake bizi harek gabe.

# [GURE BERBAK]

## Konparazio indargarrixak

Lagun artian eta, gutako baten ezaugarri bat adierazteko, konparaziuak erabiltzen dira sarri; adierazgarrixagua eta dibertigarrixagua gertatzen da sarrittan konparaziua besterik gabe "fulano xurra dok" esatia baiño. Bete egizuz hutsuniak azpiko adjetibuak erabilliz.

*1. Akerra(re)n adarrak baiño (---) dok ume hori!*
*2. Astua atzeruzka baiño (---) haiz, motell!*
*3. Zorrixa baiño (---) don gure Inazio.*
*4. Berakatza baiño (---) jaukanat alabia.*
*5. Zotza baiño (---) dok mutikoxkor hori.*
*6. Beti beriakin urtetzen dau: astua baiño (---) da!*

*A) fiñagua; B) iharragua; C) alperragua; D) aldrebesagua; E) temosuagua; F) okerragua*

*Jesus Mari Makazaga*

**EBAZPENAK:** *1-F; 2-D; 3-C; 4-A; 5-B; 6-E*



**I. URTEURRENA**
2004ko ekainaren 3an, 55 urte zituela hil zen
*Mari Trini Rey Tobaja*sen
oroimenez urteurreneko meza izango da,
larunbatean, ekainak 4, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.





**I. URTEURRENA**
2004ko ekainaren 2an, 90 urte zituela hil zen
*Juana Arbulu Azkarate*ren
oroimenez urteurreneko meza izango da,
igandean, ekainak 5, eguerdiko 12:30ean Parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.



DEBA IBAIA

# ASTE BERDEKO PROTAGONISTA

*Euskal Autonomi Erkidegoko hainbat udalerritan ari da ospatzen Aste Berdea ekainaren 1etik 8ra bitartean. Debabarrenako udalerriek ingurumena, baliabide naturalak eta garapen jasangarria babestearen aldeko apostua egin dute, eta horretarako modu aktiboan parte hartzeko konpromisoa hartu dute. Garapen jasangarria terminoaren esanahia honakoa da: herritar guztiei bizi kalitate hobea ziurtatzea, orain eta gero. Kontzeptua lehen aldiz 1987an formulatu zen, Brutland Txostena izeneko idatzian. Txosten horren arabera, garapen jasangarria hauxe da: "Egungo premiak asetzen dituen garapena, etorkizuneko belaunaldiek beren premiak asetzeko izango duten gaitasuna arriskuan jarri gabe".*

Garapen jasangarria lortzeko helburuarekin Agenda 21 izeneko lan-metodologia hartu da oinarritzat. Esparru honen barruan antolatu da V. Aste Berdea edo Ekoastea. Deba Ibaia izango da aurtengo Aste Berdeko protagonista nagusia gure eskualdean. Ingurumenaren Nazioarteko Eguna ospatzen da ekainaren 5ean, domekan, eta hainbat ekintza egingo dira Plaza Handian. Uztailaren 3an, berriz, "Deba ibaia ezagutu" irteera gidatua egingo da Deba ibaira.





### Eko-jokoa eta urari buruzko antzerkia

Deba ibaia protagonista den eko-jokoa prestatu du Debegesak (Deba Beheko Garapen Ekonomikorako Elkarteak). Eskualdeko herri guztietatik pasa ostean, ekainaren 5ean, domeka honetan, iritsiko da Elgoibarko Plaza Handira. Tribialaren eta Antzarraren jokoaren antzerakoa da, 60 m2ko dimentsioa du eta edonork parte hartu dezake.

Bestalde, ura protagonista nagusitzat izango duen antzerkia ere domekan antzeztuko da Plaza Handian bertan, 13:00etan.



### IV. Balkoien Apainketa Lehiaketa

Martxan da jadanik Debabarrenako balkoirik polit eta apainena saritzen duen lehiaketaren laugarren edizioa. Eskualdeko balkoirik politenak, Debabarrenako nekazalturismo batean asteburua igarotzeko bi pertsonentzako saria eskuratuko du. Herri bakoitzean, berriz, 8 sari banatuko dira. Sariak, lorezaintzarako materiala erosteko 100 euroko txartelak izango dira. Epaileek ekainaren 29an emango dituzte jakitera sarituen izenak. Bestalde, ekainaren 5ean, domekan, loreak banatuko dira doan Plaza Handian, bertaratzen den jendearen artean, eta daudenak amaitu arte.

### "Deba ibaia ezagutu"

Deba ibaiaren egoera eta bertako fauna eta flora ezagutzeko asmoz, "Deba ibaia ezagutu" irteera gidatua egingo da uztailaren 3an. "Ibaialde" programaren barruan kokatzen den ekimen honek Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren laguntza izango du. Datozen egunotan, beraz, ez dago aitzakiarik gure eskualdeko baliabide naturalak ezagutu eta garapen jasangarriaren alde lan egiteko.

## Pilar Silva

Ortzadar Ekolangilea



## «Ezustekoa hartuko luke jendeak ibai ertzetan dagoen bizitzarekin»

**• Zein da "Deba ibaia ezagutu" irteera gidatuaren helburua?**
Parte hartzaileek Deba ibaiaren (Debabarreneko zatia) azterketa egingo dute. Ibaiaren ingurumen egoera aintzat hartzen irakastea da helburuetako bat, jendea ibaiek dituzte arazoekin sentsibilizatzea, alegia. Horretarako ibaia eta bere ibaiadarrak, hau da, Kilimon, Sagar-Erreka, San Lorentzo, estuarioa, e.a. bertatik bertara ezagutuz.

**• Nola aztertzen dituzue ibaiak?**
Ahalik eta ikerketa zientifikoena egiten saiatzen gara. Debegesakoak arduratuko dira azterketarako materiala banatzeaz. Batetik, dokumentazio lagungarria, fauna eta landareriaren gida, esaterako. Inkesta moduko bat bete beharko dute parte hartzaileek ikerketak irauten duen bitartean batutako datuekin. Bestetik, uraren kalitatea neurtzeko, analisi fisikoak eta kimikoak egingo ditugu.

**• Euskadiko ibaien egoerak hobera egin al du?**
Gure ikerketak orokorregiak dira zehatz mehatz hitz egiteko, baina hobekuntza nabaria da. Industria astunak sortutako hondakinen gutxitzeak eta araztegien ugaltzeak ibaien eta uraren kalitatearen hobekuntza ekarri dute. Pentsa, Bilboko itsasadarrean ere bizia agertzen hasi da. Elgoibarren araztegia bukatu gabe duzue, baina martxan jartzen denean ibaiaren egoerak hoberantz egingo du.

**• Elgoibartar askok Europako ibairik kutsakuena gisa ezagutu izan dugu Deba ibaia azken urteotan. Oraindik ere ohore lotsagarri hori izaten jarraitzen al du?**
Eusko Jaurlaritzak egiten dituen azterketa zientifikoei kasu eginez gero, hoberantz egin duela ikusten da. Hortaz, ez dut uste une honetan Europako kutsatuena izango denik.

**• Bertako fauna eta flora ezagutarazi nahi dituzue. Zein dira aipagarrienak?**
Horrelako ekintzetan fauna asko ikustea zaila da, animaliak iheskorrak baitira, baina horrek ez du esan nahi ez dagoenik. Landaretzari dagokionez, ibar baso edo erriberako basoak dira aipagarrienak, Ibaietako ekosisteman funtzio garrantzitsua baitute. Urkiak, haltzak, txatxangorriak, e.a. ikus daitezke.

**• Euskal Herriko herritarren artean kontzientzia ekologiokorik badagoela iruditzen al zaizu?**
Bai, piskanaka ari da zabaltzen, baina batzuetan geldoegi doa prozesua. Horretarako jartzen ditugu martxan jendea inplikatzea bilatzen duten gisa honetako proiektuak. Ibaialde programa 1996. urtean jarri zen abian eta une honetan 3.000 pertsona inguruk parte hartzen du Euskadi osoan. Gehien parte hartzen dutenak ikastetxeak dira.

**• Zer egin behar da irteera honetan parte hartzeko?**
Izena emateko azken eguna ekainaren 23a izango da. Izena emateko 943 820 110 telefonora deitu edota e-posta idatzi behar da agenda21@debegesa.com helbidera. Jendea parte hartzera animatu nahiko nuke. Askotan pentsatzen dugu ibaiak oso zikin eta gaizki daudela, baina batzuetan alderantziz izaten da eta ezusteko bat baino gehiago hartuko luke jendeak ibai ertzetan aurki daitekeen biiztzarekin.

## [ PROTAGONISTA ]



### MoisesAndonegi

Maiatzaren 21ean Iron Man proban hartu zuen parte Moises Andonegi elgoibartarrak gizonezkoen kategorian, Kanariar Uharteetako Lanzarote irlan, eta 452. postuan sailkatu zen. Guztira, 611 lagunek lortu zuten helmugara iristea. Hiru proba egin behar izan zituzten partehartzaileek: 3,8km igerian, 180km bizikletan eta 42,195km korrika. Moises Andonegik 13 ordu, 59 minutu eta 29 segundu behar izan zituen proba hau burutzeko. Irabazlea Ain-Alar Juhanson estoniarra izan zen 8 ordu eta 55 minutuko denborarekin.

## [ NOTIZIA ]

# Miski Elkartearen aldeko dirubiltze kanpaina ekainean hasiko da

Miski Elkarteak ekainean jarriko du martxan aurtengo kanpaina. Euro baten truke rifak saltzen hasiko dira, eta neguko kanpainan lortutako diruarekin batera Peru aldera bidaliko dute, bertako proiektuekin aurrera jarraitzeko. Zozketa abuztuaren 29an egingo da, eta irabazleek herriko jatetxe desberdinetan afaltzeko aukera izango dute. Guztira, 17 afari zozketatuko dira.

**500 ume eskolaratuak**

Helburua, Cuscoko umeak eskolaratzeko dirua lortzea da. Dagoeneko 500 ume inguru eskolaratzea lortu dute Miski Elkartekoek, eta eskerrak eman nahi dizkiete kanpainan parte hartu duten guztiei. Rifak saltzearekin batera apadrinazio kanpaina ere jarri dute martxan. 18 edo 25 euroren truke Cuscoko haurren aitabitxi izan zaitezke. Bestalde, interesatuek Miski Elkarteko bazkide egiteko aukera izango dute 3 euroren truke.



## [ ZENBAKIA ]

**1.301**

Debabarrenako eskualdean 1.301 langabetu daude, hau da, biztanlego aktiboaren %5,54 langabezian dago, eta 2/3ak emakumeak dira.. Elgoibarren 213 dira langabetuak. Azken urte honetan behera egin du langabeziak gure eskualdean, eta Gipuzkoako batezbestekoaren (%6,3) azpitik gaude.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Pasa den ostiralean. maiatzak 27, Lerun Txiki baserria okupatu zuten Eibar eta Soraluze inguruko bost gaztek. Lerun Txiki baserria hutsik dago azken 20 urtetan eta gazte hauek salatu dutenez “lotsagarria da espekulazioaren garaian hain etxe ederrak erortzen uztea”.

Momentuz ez dakite noiz arte egon ahal izango diren bertan baina dirudienez oso posible da berandu baino lehen eraikuntza botatzea. Ordura arte, Okupazioaren aldeko bandera nagusituko da Lerunen eta gazteak prest daude bereari eusteko.

# Udalaren lehen bi urteeetako jarduna eskasa izan dela azaldu du Einbiouk



Einbiouk Udalaren lehen bi urteotako balorazioa egin du, eta "ezin da eskasagoa izan" hitzak erabili dituzte udalaren jarduna definitzeko. Besteak beste, "udalaren ilegalizazioa gainditzeko borondate falta, Gobernu Batzordearen jauntxokeria eta eskuinkeria, eta Alkatearen iparra galtzea" izan dira bi urte hauetatik azpimarratu dituzten gauzarik garrantzitsuenak.

**Parte hartzerik gabeko Udala**

Einbiouko kideen esanetan Elgoibarko udala ez da legitimoa: "EAJk dagozkionak baino bi zinegotzi gehiago ditu". Honetaz gain, ezin dela Udalean parte hartu eta bere gardentasun falta salatu dute: "inork ez daki erabakiak non hartzen diren, eta erabaki publikoak direnak ere, ez dituzte jakinarazten". Azkenik, Marivi Agirregomezkorta alkatearen "iparra galtzea" aipatu dute: "Udalaren jarrera inposatzaile honetan Alkatearen papera aipatu behar da. Ezin zaio kritikarik egin, gai guztiak nahastu eta dena maila pertsonalean hartzen du". Bukatzeko, Sigmako obrak egiteko gastatuko diren 100 milioiak beste zeregin garrantzitsuagoetarako erabiltzeko eskatzen du Einbiouk.

## 400.000 euroko fiantzapean askatu zuten Arnaldo Otegi




400.000 euroko finantzarekin, ostiral arratsaldean atera zen Arnaldo Otegi Soto del Real kartzelatik bi gau bertan pasatu ostean. Larunbatean, hilaren 28an, omenaldia egin zioten Plaza Handian. Ongi-etorri beroa eskaini zioten herritarrek, aurreskua dantzatu eta bertsoak abestuz. Otegik eskerrak eman zizkien Plazara gerturatu ziren guztiei: "indar okupatzaileek kartzelatu ninduten, eta herriak askatu nau", esan zuen Arnaldo Otegik. Gainera, bertan esan zutenez, ekainaren 7an, Inazio Iriondo preso elgoibartarra aske utziko dute 20 urte eta erdi gartzelan egon eta gero. Ongi etorria egingo zaio arratsaldeko 21:00etan.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Organu Emaileen mahai informatiboa bihar Plazan

Ekainaren 1ean Organu Emaileen Nazioarteko Eguna izan zenez, Elgoibarko Organu Emaileen Erakundeak mahai informatiboa jarriko du bihar goizean Plaza Handian. Bertan, transplanteei buruzko informazioa emateaz gain, jendeak organu emaile egiteko aukera izango du.

### Glotodidaktika ikastaroa antolatu du AEK euskaltegiak

AEK euskaltegiak Glotodidaktika ikastaroa antolatu du euskara irakasle izan nahi dutenei begira. Ikastaroa Antiguako AEK euskaltegian izango da, la Sirena etxean, Igeldo pasealekuan, ekainaren 27tik uztailaren 22ra, goizeko 9:00etatik 14:00etara. Izena emateko epea ekainaren 22an amaituko da. Ikastaroan aprobetxamendu ona izanez gero, eta homologaziorako baldintzak betez gero (EGA eta diploma unibertsitarioa izatea), AEKren lan poltsan sartuko dira ikaslea. Informazio gehiago 943 327 172 telefonoan.

### Barnetegietan euskara ikasteko dirulaguntzak

Urtero bezala, Elgoibarko Udalak Barnetegietan euskara ikasteko dirulaguntzak emango dizkie ikasle eta langabetuei. Gastuaren %40a emango zaie, gehienez 180 euro. Informazio gehiago nahi izanez gero, udaletxeko euskara zerbitzura jo daiteke (Kultur Etxeko 1. solairua), telefonoz deitu (943 74 43 66) edo www.elgoibar.org webgunean.

### 629.712 euroko saria Quinielan

Ligako azken jardunaldiko Quinielak 629.712 euroko saria utzi du Elgoibarren, 104 milioi pezeta inguru. Boletoa Madalako Kioskoan bota zuen irabazleak. Ez dakigu nor den saritua, baina zorionak!

Espainiarren %58arentzat langabezia da gairik kezkagarriena, ondoren terrorismoa, inmigrazioa eta etxebizitzak

# Zein da zu gehien arduratzen zaituen gaia?

**JUAN KRUZ AGIRRE**
Pentsionista
39 urte



“Terrorismoa. Euskaldunok bakea behar dugu Euskal Herrian ondo eta lasai bizitzeko. Langabeziaren gaia ere garrantzitsua iruditzen zait eta kezkatzen nau.”

**CARMEN ALAMINO**
Langabetua
44 urte



“Inmigrazioa. Gero eta atzerritar gehiago dago hemen, lana kentzen digute, langabezia gero eta altuagoa da eta ezin dugu etxebizitzarik erosi. Dena lotuta dago.”

**MERCHE SOLAR**
Etxekoandrea
61 urte



“Etxebizitza. Nik gai hau konponduta daukat, baina gazteentzako gauzak oso zail daudela uste dut. Etxebizitzen prezioak jaisteko zerbait egin behar da.”

**JOSE MIGUEL CERRATE**
Langabetua
19 urte



“Gai guztiak dira kezkagarriak, baina batez ere, terrorismoak kezkatzen nau. Honen atzetik kokatuko nituzte langabezia eta etxebizitzaren gaiak. ”







## JAIOTAKOAK



**Beñat Herrero Ansola**
[Maiatzak 6]
Maite eta Manuel



**Leire Gonzalez Arrizabalaga**
[Maiatzak 10]
Ander eta Ainhoa



**Alex Azpilicueta Garcia**
[Maiatzak 11]
Gorka eta Marta



**Malen Zabala Elizburu**
[Maiatzak 12]
Iagoba eta Arantxa



**Aritz Vallejo Caballero**
[Maiatzak 28]
Oscar eta Ainhoa



**Naroa Rodriguez Aranburu**
[Maiatzak 28]
Boni eta Onintza

**Iraitz Pedroche Soto**
[Apirilak 25 ]
Guillermo eta Saray

**Danel Santamaria Cid**
[Maiatzak 4]
Julian eta Teresa

**Iker Alava Arguinchona**
[Maiatzak 5]
Aitor eta Saioa

## HILDAKOAK

Francisco Gonzalez • [ 74 urte ] • Maiatzak 6
Tomasa Altuna• [ 89urte ] • Maitzak 12
Arantxa Sanchez• [ 45 urte ] • Maitzak 19
Benito Bastida• [ 77 urte ] • Maitzak 21
Dolores Alba• [ 87 urte ] • Maitzak 21
Simon Urain• [ 64 urte ] • Maitzak 25
Purificacion Unamunzaga• [ 78 urte ] • Maitzak 28

## EZKONTZAK

Andoni Arregi Gonzalez eta Bea Ansola Garate [ Maiatzak 7 ]
Emilio Capdevila Zafra eta Alazne Gonzalez Astigarraga [ Maiatzak 14 ]
Garikoitz Riaño Sanchez eta Else Zubiaurre Basterrika [ Maiatzak 21 ]

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira **943 74 41 12** telefonora edo bidali e-postaz **barren@elgoibarkoizarra.com** helbide elektronikora.

ETXEBERRIA
Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA
TANATORIOA

KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK
NORBANAKOEI eta KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak.
Donostia eta probintziako erietxe zentroetan ere bai.
Santa klara, 14  20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01

EUSKARAZ HITZ EGITEKO PROGRAMA

# MINTZALAGUNA

*Inguruko herri batzuetan bezala, Mendaron ere Mintzalaguna proiektua jarri dute martxan AEK Euskaltegiak, In Leike Euskara Taldeak eta Udalak elkarlanean. Proiektu honen helburua euskaltegira joaten diren ikasleei kalean euskaraz hitz egiteko aukera eskaintzea da. Aste Santu ostean jarri zuten programa hau martxan, eta momentuz oso gustura dabiltza denak. Gaurkoan euskaldun berri eta euskaldun zaharren inpresioak jaso ditugu.*

**8 EUSKALDUN BERRI, BI TALDETAN**

Haritz Goikoetxea mendaroarra aritu da antolatzaile lanetan, In Leike, Udala eta AEK Euskaltegiaren laguntzaz: "Gainontzeko herrietan programa honek arrakasta izan du, eta geurean ere proba egitea nahi genuen".

Zortzi euskara ikasle ari dira programa honetan parte hartzen. Bi taldetan banatuta, astean ordu betez elkartzen dira Mendaroko euskaldun zaharrekin euskaraz hitz egiteko. Haritz Goikoetxea da talde bateko euskaldun zaharra, eta esperientzia aberasgarria dela kontatu digu: "Ikasleak oso gustura etortzen dira, eta guretzat oso aberasgarria da".

Helburua 10 saio egitea dela azaldu digu Haritzek. 7 saio egin dira eta uda aurretik bukatuko dituzte guztiak. Datorren ikasturteari begira, programa mantentzea gustatuko litzaiekeela kontatu digu.





## «Tertulietatik kanpo ere euskaraz egitea lortu behar da»

**AINTZANE URBIETA** Euskaldun zaharra

**• Zergatik animatu zinen proiektu honetan parte hartzera?**
Antolatzaileak euskaldun zahar bila ibili ziren, eta badirudi ez zela jende asko animatu. Niregana jo zuten ea prest nengoen galdetuz, eta baietz esan nien, ni euskaraz hitz egitera ohituta nago, eta astean ordubeteko konpromisoa hartzea ez zitzaidan gehiegizkoa iruditu.

**• Noiz elkartzen zarete?**
Ostiraletan geratzen gara, arratsaldeko 15:00etatik 16:00etara kafetxo bat hartzeko, eta noizbait pasiara bat ematera ere joan izan gara.

**• Zenbat elkartzen zarete?**
Gure taldean hiru euskaldun berri daude, eta euskaldun zaharra ni naiz. Lauko taldea osatzen dugu.

**• Zeri buruz hitz egiten duzue?**
Edozein gairi buruz. Behin aldizkari batean irakurri nuen homosexualen arteko ezkontza baimendu zutela, eta gai hori eraman nuen horri buruz hitz egiteko, baina ostantzean eguneroko kontuei buruz hitz egiten dugu, egunero gertatzen zaizkigun gauzetaz.

**• Ezagutzen al zenituen zure taldeko euskaldun berriak?**
Mendaron bistaz denok ezagutzen gara, baina ez ginen lagunak. Honi esker adiskidetasun maila bat lortu dugu.

**• Euskaldun berriekin, eta gainera lagunak izan gabe euskaraz hitz egitea erraza al da?**
Bai, ez dut inolako zailtasunik izan. Nire bizitzan euskara erabiltzen dut beti, eta, gainera, eurak, oso irekiak dira.

**• Igarri al duzu ikasleen euskara mailan eboluziorik?**
Denbora gutxi daramagu, eta pare bat astetan ezin izan gara elkartu. Guztira lau saio egin ditugu, eta zaila da eboluzioa igartzea. Hala ere, uste nuena baino hobeto moldatzen dira. Nik beti gazteleraren lotzen nituen pertsona hauek, kalean beti gazteleraz berbetan entzun izan ditut, eta harritu egin nintzen.

**• Merezi al du honelako programa bat martxan jartzeak?**
Bai, ni oso gustura nabil, esperientzia polita da. Hala ere, lortu behar dena ordubete honez gain, norberak bere bizimoduan euskaraz egitea da. Tertuliatik kanpo gaztelerara jotzen dute beti, eta seguru izango dutela norbaitekin euskaraz egiteko aukera.



# «Mendaron bizitzeko derrigorrezkoa da euskaraz jakitea»

## SONIA ESCOBAR eta ISIDORO GONZALEZ Euskaldun berriak

• **Noiz hasi zineten euskara ikasten?** Bi urte inguru. Bizkaitarrak gara, eta duela bi urte etorri ginen Mendarora bizitzera. Kalean jende guztiak euskaraz hitz egiten zuela konturatu ginen, eta guk ez genekien euskaraz. Euskaltegian izena emateko iragarkiak ikusi genituen, eta apuntatu egin ginen.

• **Eta aurten Mintzalaguna programan hasi zarete parte hartzen.** Bai. Euskaltegian gramatika asko erakusten digute, baina dena euskara batuan egiten dugu. Mintza praktikarekin kaleko hizkera entzuten dugu, eta hori oso garrantzitsua da. Izugarria da hitz bera zein desberdina den azentuaren arabera.

• **Gustura joaten al zarete tertulietara?** Oso gustura. Jendea oso jatorra da, eta asko laguntzen gaituzte. Zerbait esaten ari garenean trabatzen bagara ez gaituzte presionatzen, itxaron egiten dute amaitu arte. Pazientzia handia daukate. Kalean jendeak presa gehiago dauka, eta trabatu egiten garenean beraiek bukatzen dute esaldia. Desberdina da.

• **Tertulietatik kanpo erabiltzen al duzue euskara?** Gure artean gazteleraz hitz egiten dugu. Oso gutxi ikusten gara, eta ikusten garenean beti presaka ibiltzen gara. Gauza asko izaten ditugu elkarri esateko eta denbora gutxi. Lanean badauzkagu euskaraz dakiten lankideak, eta haiekin saiatzen gara euskaraz egiten. Iloba txikiak ere baditugu, eta haiekin euskaraz egiten dugu. Umeekin hitz egitea errazagoa da, eta gainera ulertu egiten gaituztela ikusteak poztu egiten gaitu.

• **Zertarako nahi duzue euskara ikastea?** Gaur egun beharrezkoa da, lanerako eta bizitzeko, eta etorkizunean umeren bat izaten badugu, berarekin euskaraz hitz egitea gustatuko litzaiguke.

• **Zer da gehien kostatzen zaizuena?** Hitz egitea da zailena. Idazterakoan pentsatzeko denbora gehiago daukazu, eta entzuterakoan hitzen esanahia berehala etortzen zaizu burura, edo kontestuak berak ematen dizu. Hitz egiterakoan beharrezko hitzak aurkitzea zaila izaten da.

• **Igarri al duzue eboluziorik zuen euskara mailan?** Bai. Hasieran ez ginen ezer esateko gai, eta orain poliki bada ere, hitz egiten dugu euskaraz. Lotsa kentzea da garrantzitsuena eta euskaraz hitz egiten saiatzea. Askotan hanka sartzeko beldur handia izaten dugu, eta gaztelerara jotzen dugu. Tertulietan ez daukagu gauzak gaizki esateko beldurrik. Egitasmo polita da, aberasgarria eta ahal baldin badugu behintzat, datorren ikasturtean ere jarraituko dugu.



# Look aldaketa

## Nerea Alberdi

"Nerea Alberdi 15 urteko ikaslea da. Agurtzane ileapaintzaileak orrazkera eta ile mozketa aukera ezberdinak argazkietan erakutsi ahala, ilea motz zeraman bat gustatu eta berari ere mozteko gogoa sartu zaio. Motz, luze, motz... Ileapaintzailearekin eta laguntzera joan den amarekin bat edo beste ezin aukeratu egon ostean, atzekaldetik luzeagoa lagatzeko konbentzitu dute eta gustatzen ez bazaio erremedioa erraza da; guraizeak sartu eta zast! Eguneroko bizimoduan lan gehiegirik emango ez zion mozketa nahi zuen eta bere irriparrak gustura geratu dela adierazten du.

lehen



orain



## prozesua...

## Agurtzane ileapaindegian



Ile ederra duela Nereak aipatu digu ileapaintzaileak: "Bolumen asko izateaz gain, orrazteko erraza da. Horregatik, Ile luzea hobeto doakiola uste dut".



"Atzekaldeko luzera mantendu diogu, baina baita ile asko gastatu ere. Flekiloa ez zuen motzegia nahi eta konpondu besterik ez diougu egin".



"Goiko partean kapa asko egin dizkiogu bolumen sentsazioa emateko". Ilea beltzez tindatzeko gogoa geratu zaio, baina hori beste baterako laga du.

Zure itxura DOAN aldatu nahi al duzu? Jarri gurekin harremanetan: **barren@elgoibarkoizarra.com**

# biluzik
sexologia txokoa



Eli Moreno [Sexologoa]

## Hurrengo eguneko pilula

***Bereizketa egin behar da: antisorgailuak koito harremana izan aurretik hartzen dira eta Hurrengo eguneko pilula, aldiz, neurririk hartu ez dugulako eta arriskuko jokabidea mantendu dugulako. Nik "emergentziazko pilula" deituko nioke. Kasu konkretuetan hartu behar da, antisorgailu batek efektorik ez baldin badu egin edo eta ez badugu erabili. Ez da erabili behar antisorgailu bezela.***

- **Zer da "Hurrengo eguneko pilula"?**

Bi pastila dira. Arriskuko jokabidea mantendu eta 72 ordu pasa baino lehenago hartu behar da. Lehenengo 24 ordutan efektua %95ko da eta hortik aurrera %85-%75era jaisten da. Mediku batzuk bi pastilak batera hartzea gomendatzen dute eta beste batzuk lehenengo bat eta bestea 12 ordutara.

- **Noiz erabili behar da?**

Sexu transmisioko gaixotasunak , GIB-HIES-a prebenitzeko eta haurdun ez geratzeko 3 aukera daude: sexu harremanik ez mantentzea, arrisku gabeko sexu harremanak mantentzea edo preserbatiboa erabiltzea. Pilula antisorgailua da eta Hurrengo Eguneko pastilla, berriz, emergentzietarako da eta koitoa izan ondoren hartzen da.

- **Kontradikziorik ba al dauka?**

HEP hartu eta hurrengo 3 egunetan nekatuta, botaka egiteko gogoarekin, edo mareoekin egon gaitezke. Gaur egun jendea kontrolik gabe hartzen ari da, antisorgailu bezela eta kasu hauetan ez dakigu zeintzuk izango diren efektuak.

- **Errezeta erosteko?**

Medikura joan behar dugu, larrialdietara, errezeta egingo digute eta gero farmazian erosi ahal da 19,50 eurotan. Halere, hausnarketa egin beharko genuke, kondoi batek euro bat balio du, ez digu burukomenik ematen eta NGH, STG eta GIB-HIESak prebenitzen ditu. HEPak burukomin handiak eragiten ditu, ia 20 euro balio du eta ez gaitu STG eta GIB-HIESetik babesten. Gainera, egonezina eta antsietatatea sortzen ditu eta ez da oso fidagarria. Merezi al du?

gazte informazioa

## IKASTAROAK

**FLAMENKO IKASTAROA**

Urnietako Arte Eszenikoetako Sarobe Zentroak antolatua. Ekainaren 11n eta 12an izango da Saroben. Epea: plazak bete arte. Informazioa: 943 008042

**ENPLEGU BILAKETA PRO-AKTIBOA**

Nazaret Zentroak 25 urtetik gorakoentzat 20 orduko Enplegu-bilaketa pro-aktiboari buruzko ikastaroa antolatu du. Ekainaren 13tik 23ra, goizez. Prezioa: %100 diruz lagunduta. Epea: plazak bete arte. Informazioa: 943 326666

## EKINTZAK

**AUZOLANDEGIAK ETORKINEKIN. 2005**

Caritasek antolatua, 20 urtetik gorakoentzat. Uztailetik irailera. Lekua: Laguntza Etxea, Intxaurrondo. Epea: plazak bete arte. Prezioa: 40 euro. Informazioa: 943 291040 (Hilari)

**MUSIKA UDALEKUAK**

Donostiako Musika Hamabostaldiak antolatua 6tik 12 urtera bitarteko haurrentzat. 4 eta 5 urteko haurrentzako tailerra egongo da. Abuztuaren 1etik 12ra, Donostiako Mintegian, astegunetan goizeko 9:30etatik 13:30etara. Chopin estudioaren lankidetzarekin. Prezioa: 103 euro. Epea: uztailak 16. Informazioa: 943 003170, www.quincenamusical.com

## LANA

**2 KIROL MONITORE**

Hernanin 2 Kirol Monitore kontratatzeko oposizio-lehiaketa. Oinarriak: Goi-mailako Batxilergoa, 2. mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea. Igeriketako Monitore Titulua izatea. 2. hizkuntza-eskakizuna, 2005-01-01eko derrigorrezkotasunarekin. Epea: ekainak 16. Informazioa: 943 552185, www.gipuzkoa.net

**HAUR ESKOLETARAKO HEZITZAILEA**

Iruñeko Udal Haur Eskolen erakunde Autonomoan euskaraz dakien haur-eskolako hezitzaile-lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa kaleratu da. Oinarriak: Haurtzaindegiko Teknikari Espezialistaren titulua edo Haur Hezkuntzako Goi-mailako Teknikariaren titulua izatea. Titulu horien ordez beste hauetako bat izan daiteke: haur Hezkuntzako Irakasle espezialista, OHOko irakaslea, eskola-aurrekoaren espezialitatearekin. Euskarazko lehen mailako goi-zilkoko Gaitasun Ziurtagiria edo baliokidea. Epea: ekainak 27. Informazioa: 948 221101, www.cfnavarra.es

## LEHIAKETAK

**KARTEL-LEHIAKETA**

Aretxabaletako Udalak jaietako kartel lehiaketa antolatu du. Saria: 300 euro. Teknika librean. Ondoko testua azaldu beharko dute: Andramaixak 2005, Abuztuaren 14º, 15º, 16º eta 17º. Aretxabaleta. Epea: ekainak 30. Informazioa: 943 711027

**ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA**
Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es
☎ 943 741 461
Astelehen-astearte/ostegun-ostiral
16:00-19:00



## MANOLO GURRUTXAGA
### GIBEL TRANSPLANTATUA

# «Gibel berriarekin, pozik, beteago sentitzen nintzen, sentsazio ederra zen oso»

*Bihar. Ekainak 4, ALCER elkarteak mahaiak kalera aterako ditu herritarren artean organo-emaileak lortzeko. Izan ere, Deba Barrenean 388 organo-emaile dauden arren, kopuru hori zenbat eta gehiago igo, are eta hobeto. Manolo Gurrutxaga ekarri dugu gure artera. Berari gibela transplantatu zioten duela zazpi urte.*

**Nola konturatu zinen zerbait gaizki zenuela?**

Urtean behin enpresan egiten duten azterketa medikoan esan zidaten gibela handituta nuela. Espezialistarengana jo nuen, frogak egin zizkidaten eta gibeleko tumorea neukala esan zidaten.

**Gogorra, ezta?**

Bai, tumore txarra duzula entzutea ez da batere goxoa. Transplantea beharrezkoa nuela esan zidaten. Denetik sentitu nuen: beldurra, galderak, zalantzak... 9 cm-ko tumorea neukan.

**Transplantea berehala egin al zizuten?**

Ez, gibela handituta nuela ikusi zutenetik urtebete inguru pasatu zen. Frogak egin, ea minbizia gibelean bakarrik neukan edo beste organoren bat ere harrapatu ote zuen aztertu.... Gauzak ondo neurtu behar dira eta dena argi dagoenean sartzen zaituzte itxaron zerrendan. Nik zortea izan nuen, ze 15 egunetara esan zidaten gibela zegoela niretzat. Ebakuntza egin zidaten eta gaur arte. Zazpi urte pasa dira eta berriz jaio nintzela esan dezaket.

**Ba al dakizu noren gibela jaso zenuen?**

Ez, informazio hori ez dute ematen eta, egia esan, hobe horrela ze, bestela, bizitza osoa berarekin eta familiarekin zorretan egongo nintzateke. Orain ere daukat zorraren sentsazio hori, dudarik gabe, inoiz ezingo dut ordaindu eman didaten guztia. Bizitza eman zidaten.

**Transplantearen ostean ez al duzu arazorik izan?**

Hasieran glukosa oso altu geratu zitzaidan eta arriskua zegoen diabetea izateko baina, zorionez, desagertu egin zen eta gaur egun hartzen dudan botika bakarra retxazoaren aurkako pilulak dira.

> **[ «Egunez egun baloratzen dut bigarren aukera bat izan dudala» ]**

**Gibela transplantatu eta hurrengo egunetan zerbait berezia sentitu al zenuen?**

Bai, baina zaila da azaltzea. Betea sentitzen nintzen, nire barruan zerbait berria jaio izan balitz bezala. Oso sentimendu berezia eta ederra zen, bizipoza.

**Bizitza ikusteko modua aldatu egin al da zuretzat?**

Ikusteko eta sentitzeko. Ohiturak aldatu behar dituzu, txikiteorik ez, elikadura garbia, lana egiteari laga egin nion... Baina argi dago kalitatezko bizitza daukadala, oso gustura bizi naiz, egunez egun baloratzen dut bigarren aukera bat izan dudala.

**Organo-emaile al zinen lehen?**

Lehen ez eta gaur egun, aldiz, bai ni eta baita nire familia eta lagunak ere.

**Zer esango zenioke emaile ez den bati?**

Bizitza galduz gero, organo horiek hilzorian dauden pertsonei bizitza emateko balio dezaketela. Oso garrantzitsua da emaile txartela izatea, ze modu horretan medikuek badakite hil den pertsonaren borondatea zela organoak ematea. Bestela, familiak hartu behar du erabakia eta prozesua asko atzeratzen da. Kasu askotan, denborak berebiziko garrantzia du.

**Eskerrak eman nahi dituzu, ezta Manolo?**

Bai, lehenik eta behin gibela eman zidan pertsona eta familia eskertu nahi nituzke, bigarrenik, Gurutzeta Ospitaleko liseri-aparatu saileko lantalde osoa, nik lan egin nuen enpresako erizainak, bereziki Lola eta, nola ez, baita nire familia osoa ere.

AURRESKU ETA SOINU ZAHAR TXAPELKETA

# Amaitu dira Euskadiko Aurresku eta Soinu zahar Txapelketak



Errenterian jokatu zen Aurresku Txapelketaren finala. Azaroan hasi zen ligaxka batean aurrera egin ostean lau dantzari heldu dira finalera; Azkoitian, Legazpian, Oiartzunen, Beasainen, Elgoibarren eta Ordizian ospatutako kanporaketetan aurrera egin ondoren, alegia. Bertan, 7 eta 11 urte bitarteko mailan parte hartu zuen Mikel Zuñigak eta 10. postuan sailkatu zen.

B sailean, hau da, 11 eta 15 urte bitartekoen mailan, Ander Aranberri izan zen elgoibartarrik onena 8. postuan. Julen Conde eta Josu Espilla elgoibartarrak sailkatu ziren bere atzetik.

Neskei dagokienez, Legazkin jokatu zen Soinu zahar Txapelketaren finala. Euskadi osoko 15 dantzaririk onenak sailkatu ziren Legazpiko finalerako eta hemen ere lau ziren finalera iristea lortu zuten parte hartzaile elgoibartarrak urte guztiko prestakuntzaren ondorioz.

Gaztetxoen mailan 6. postuan sailkatu zen Maialen Solabarrieta, 9. postuan Garazi Aiesta eta 11. postuan Ainhitze Etxeberria.

B sailean 4. postuan sailkatu zen Dorleta Fernandez.

## Kurtso bukaerako kontzertuak

Inazio Bereziartua Musika Eskolako ikasleek kurtso bukaerako kontzertuak eskaini zituzten. Astean zehar Musika Eskolako auditorioan eskaini zituzten kontzertuak eta barixakuan Herriko Antzokian jarri zuten jendaurrean urte guztian irakatsitakoa. Ikusleek eskertu zuten artista gazteen trebetasuna eta hauek publiko aurrean jotzea zer den ikasteko aukera izan zuten oraingoan.

## "Absit" taldearen rock kontzertua

"Absit" rock taldeak kontzertua eskainiko du zapatu gauerdian (24:00) Madalako parkean. Santanderreko "La Industria" izeneko akademia batetik atera dira "Absit" taldeko musikariak eta taldea sortu berria da. Musikarekin batera, "Estado critico" izenburua daraman ikus-entzunezkoaz lagunduko dute beraien agerraldia.




karkizano
San Frantzisko, 14 – Tel. 943 74 05 49

Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

OREKA
TERAPIA FAMILIARRA
(bikote eta banakako terapia)
PSIKOLOGIA
HARREMAN ARAZOAK: bikotearekin, familiarekin edo kideekin
UMEEN ETA NERABEEN ARAZOAK
ANTSIETATEA
DEPRESIOA
ESTRESA
ELIKADURA ARAZOAK
AUTOESTIMA

## ION REVERT ANTXINTXIKARIA

# «Ikusleen animoekin daukazuna baino gehiago ematen duzu Aizkorriko maratoian»








*Ion Revert (29 urte) elgoibartarrak bigarren urtez jarraian egin du Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia. Bost ordu eta hogeitabost segundu behar izan zituen 42 kilometroak egiteko, iaz baino orduerdi gutxiago.*

**Ozta-ozta sartu zinen lasterketan, ezta?**

Bai, 350 lagun onartzen zen altuenez eta izena ematerakoan lekurik gabe geratu nintzen. Erreserban jarri ninduten eta lasterketa baino 10 egun lehenago deitu zidaten. Entrenamenduen erritmoa jaitsita nuen eta lanean eskatutako jai-eguna atzera botata, baina ez zitzaidan asko kosta berriz mentalizatzea.

**Eguraldiak lagundu zizuen.**

Bai. Aurreko egunetan egin zuen beroa ez doakit ondo, baina domekan freskatu eta antxintxika egiteko aparteko eguna atera zen. Lurra lehorra zegoen eta bukaeran hasi zen sirimiria freskagarria zen. Jende askok ondu zituen markak, baita elgoibartarrok ere.

**Nola amaitu zenuen?**

Zisko eginda. Ikusleen animuek airean eramaten zaituzte, motibatu egiten zara eta nahigabe erritmoa bizitzen duzu. Daukazuna baino gehiago ematearen ondorioz bukatzen duzu ziplo eginda. Ikaragarria da ikusleek nola animatzen gaituzten. Oraindik ere jendearen animo ohiuak entzuten ditut, Tourra korritu izan banu moduan sentitzen nintzen.

**Unerik kritikoena?**

Andraitzeko igoera. Urbiatik pasa ostean geratzen den azken aldapa da, 30. kilometroan. Txorkatila ere okertu nuen, baina beroan ez zidan trabarik egin. Zangoek asko sufritzen dute jaitsieretan eta koadrizeps giharreak asko kargatzen dira. Oinetan atzazalik ere ez zait geratzen ia.

**Korrika egiten al duzue ibilbide guztia?**

Gehiena bai. Puntu jakin batzutan bakarrik joaten gara oinez: Aitzkorrin, Sancti Spiritu bukaeran eta Andraitzen.

**Zer prestakuntza egin duzu?**

Abenduan Gasteizko erdi maratoia eginez hasi nintzen. Ez daukagu ideia handiegirik horrelako probak nola prestatu baina aurten serioxeago hartzeko asmoa dut. David Conde, nire laguna, begipuntuan daukat eta ia harrapatzen dudan, badut gogoa! 7 minutu kendu dizkit. Elkarrekin entrenatzen dugunean parean ibiltzen naiz, baina lasterketetan urduri jartzen naiz eta bera, berriz, hazi egiten da.

**Noiztik mendi lasterketetan?**

Lehen futbolean jokatzen nuen, atezain gisa, eta gorroto nuen korrika egitea. Laneko turnoak zirela-eta, futbola laga eta duela 3 urte korrika egiten hasi nintzen kirola egitearren. Lehen mendi lasterketa Gorbean egin nuen. Lehena eta gaizkien pasa nuena, goian izugarrizko hotza egiten baitzuen. Ez nuela errepikatuko esan nuen, baina keba. Gustua hartu diot korrika egiteari, bizio bat da. Gainera, lagun asko egin ditut korrikalarien artean.

**[ «Futbolean jokatzen nuenean gorroto nuen korrika egitea» ]**

ZEGAMA-AIZKORRI MENDI LASTERKETA

# Bost herritarrek amaitu zuten Aizkorriko maratoia

Bost elgoibartar ausartu ziren IV Zegama-Aizkorri Mendi Maratoian parte hartzera joan zen domekan. 322 lagunek amaitu zuten Munduko Kopako I. proba puntuagarria eta Rob Jebb britainiarrak izan zen irabazlea, aurreko marka 12 minututan onduz (3:54:18). Elgoibartarrei dagokienez, iaz moduan David Conde izan zen helmugaratzen lehena. Ehizan ez ezik antxintxika ere trebea da mutil hau eta 4:53:08-ko denbora behar izan zuen 42,195 metroko ibilbidea eta 5.472 metroko gora-behera metatua gainditzeko. Mendi Lasterketako Euskal Herriko II. Txapelketarako ere balio zuen probak eta 23. postuan sailkatu zen Conde. Xabier Bergaretxe (5:00:25) 57. postuan sailkatu zen eta ia 9 minututan hobetu zuen iazko denbora. 60. postuan sartu zen Jon Revert




(5:00:51). Honek 35 minututan hobetu zuen iazkoa. Asier Arrieta 103. postuan sailkatu zen 5:14:11-ko denborarekin. Azkenik, Andoitz Agirregiomezkorta 216. postuan helmugaratu zen 5:58:59-ko denbora ezarriz.

## Atletismo Egokituaren estreinaldi arrakastatsua Mintxetan

Elgoibarko Atletismo Egokituaren I. Probak irudi ikusgarriak laga zituen joan zen zapatuan Mintxetako Kirolgunean. Gurpildun aulkietan aritu, gorrak edo itsuak izan arren, edonorentzako exenplu dira atleta saiatu hauek. Orduak eta orduak sartu behar izan dituzte beraien ezintasunak gainditzeko, baina lortzen dituzten markak ez dira edonolakoak. Mintxetara hurbildu zen jendea zur eta lur geratu zen gurpildun aulki batean 100 metroak 16.01 segundotan egiten zituztela ikustean edo 1.500 metroko lasterketan 3:35:47-ko denbora egiten zutenean. Mexiko, Portugal, Frantzia, Espainia eta Euskadiko 50 atleta inguru aritu ziren Mintxetan. Parte hartzaileen artean Atenaseko eta Sidneyko Olinpiadetan lortutako bi urrezko domina, bost zilarrezko eta bi brontzezko osatzen zituzten.



## Kadeteen partidu erabakiorra izango da zapatu honetan

Joan zen astean C.C. Elgoibar kadete mailako futbol taldea mailaz igo zela esan bagenizuen ere, igoera faseko kanporaketa jokatu eta gainditu beharko du oraindik ametsa egi bihurtzeko. Ordiziako taldearen aurka joaneko partida 0 eta 1 irabazi ostean, zapatu honetan, hilaren 4an, Mintxetan jokatuko dute itzulerako partida erabakiorra. Ordiziari irabaziz gero, datorren urtean Ohorezko mailan arituko dira.

## [ EMAITZAK ]

**FUTBOLA**

Haundi 0 - Zalla 0 (3. maila)
Ordizia 0 – Elgoibar 1 (Kad.)
Beti Ona 3 – Elgoibar 2 (Neskak F-8)

**PILOTA**

Debarroko Txapelketa
Arrasate 22 - Lagunak B 14 (Nag.)
Eibar 1 – Lagunak 22 (Jub.)
Lagunak 22 – Euskal Jolas 9 (Kad.)

Udaberri Txapelketa
Ilunpe 18 - Lagunak 6 (Inf.)

Lagunak Txapelketa
Ruiz 18 - Zubizarreta 17 (Benj.)
Astigarraga 18 - Odriozola 0 (Benj.)
Gabilondo 18 - Ruiz 8 (Aleb.)
Amesti 18 - Cid 7 (Aleb.)

## [ AGENDA ]

**FUTBOLA** Mintxetan
Zapatua, 4
11:00 Elgoibar – Ordizia (Kad.)

## [ IDARRAGA SARIAK ]

**IDARRAGA KAFEAK 8. SARIA**

**HAUNDI**ko jokalari erregularrena **04/05**

| Jokalaria | Puntuak |
|---|---|
| 1. J. Igartua | 50 |
| 2. Navarrete | 48 |
| 3. J. Arrasate | 48 |
| 4. David | 39 |
| 5. Ibai Gonzalez | 37 |
| 6. Etxabe | 31 |
| 7. Loren | 29 |
| 8. M. Elkoro | 28 |
| 9. A. Arenas | 28 |
| 10. Javi Gomez | 20 |
| 11. I. Oruesagasti | 16 |
| 12. Mikel Calvo | 15 |
| 13. Iribar | 12 |
| 14. Guinea | 10 |
| 15. Urzelai | 5 |
| 16. Izagirre | 5 |
| 17. Unai | 3 |
| 18. Mandiola | 2 |

# Merkatua

**OHARRA**
Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

**Langai** Euskal Lan Zerbitzua

- Elgoibarko enpresak **bainuzain soroslea** behar du. Erref. 162005004900
- Arrasateko enpresak **zurgintzako Lanbide Heziketakoko irakaslea** behar du. Erref. 162005004572
- Azkoitiko enpresak **KZgunerako tutorea** behar du. Erref. 162005005443
- Arrasateko enpresak **kirol dendarako saltzailea** behar du. Erref. 162005005195
- Arrasateko enpresak **ostalaritzako Lanbide Heziketako irakaslea** behar du. Erref. 162005004224
- Eibarko enpresak **sendagilea** behar du. Erref. 162005005355
- Gipuzkoako enpresak **kamioi gidaria** behar du. Erref. 162005005304
- Zarauzko enpresak **erizaina** behar du. Erref. 162005005299
- Eibarko enpresak **jostuna** behar du. Erref. 162005005160
- Itziarko enpresak **elektrikaria** behar du. Erref. 162005004161

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu 901222901 telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) 943 74 80 19 edo IMH (Nora Ramón) 943 74 41 32 telefonora.

## [ LANA ]

### ESKAERA

- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. ☎ 600 28 27 93
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanetarako prest: ☎ 686 57 82 28
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest: elkarteak, portalak, tabernak, etxeak... ☎ 639 88 20 04
- Soldadore titulatua lanerako prest. ☎ 943 53 17 45
- Emakumea umeak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. ☎ 699 28 40 64
- Mutila eskaintzen da lan egiteko: gida baimena dut, urdaitegi-harakin ezagutza. ☎ 615 00 83 46
- Soldadorea lanerako prest. ☎ 696 79 41 07
- Zaintzailea nagusiak zaintzeko prest. 10 urteko esperientzia eta informeak. ☎ 685 729 790
- Mutila nagusiak zaindu, txofer, edo igeltseritza lanetarako prest. ☎ 670 25 78 04

### ESKAINTZA

- Sukaldari laguntzailea eta kamareroak behar dira. ☎ 943 12 12 62
- Pertsona euskalduna behar da astean zehar, gauez barran lan egiteko. ☎ 670 65 49 21
- Debako Kresala Hotel-Jatetxeak terrazarako kamareroak behar ditu udarako. ☎ 943 60 80 52 (Axun)
- Asteburuetan gasolindegian lan egiteko pertsona behar da, uztaila, abuztua eta irailerako. ☎ 943 74 02 41
- Ileapaintzailea behar da egun erdiz lan egiteko. ☎ 943 74 18 64
- Pertsona bat behar dut udan etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. ☎ 687 114 707

## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

- Pisua salgai Pedro Muguruzan. Eguzkitsua eta bistekin. ☎ 617 979860 (15:30etik aurrera)
- Etxea salgai Basarteko lehen ilaran. 68m$^2$ . Dena kanpora. 2 logela, 2 komun, egongela, sukalea, lehortegia eta garajea. ☎ 687 23 58 39
- Etxea salgai Urasandin. ☎ 666 718 263 (Igor)
- Etxe berria salgai Soraluzen. Komunak eta sukaldea amueblatuta. Garajea, entreplanta eta txokoa. ☎ 615 77 99 20
- Etxea salgai Mendaron. 77m$^2$ Bizitzera sartzeko moduan, dena kanpora, eguzkitsua eta ganbararekin. ☎ 659 71 57 22
- Etxea salgai, oso egoera onean. 3 logela eta terraza. ☎ 609 541 622
- Etxea salgai Pedro Muguruzan. Sukaldea, komuna, egongela, 2 logela, balkoia, terraza, trasteroa. 156.500 euro. ☎ 600 300 682
- Pisua salgai Artetxen (Iñigez de Karkizano). Berritua, altzariekin, dena kanpora, ganbararekin.☎ 627941261
- Etxea salgai Errosario kalean. Bizitzera sartzeko moduan. Sukaldea, 3 logela, 3 balkoi, egongela, komuna, despentsa, berogailu zentrala. ☎ 943 74 02 68
- Etxea salgai Santa Ana kalean. Altzariekin, 3 logela, komuna, sukaldea, egongela, 2 trastero. ☎ 647067666
- Etxea salgai Santa Ana kalean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailuarekin. ☎ 943 74 26 14
- Etxea salgai Mendaron, Herriko Enparantzan. 3 logela, egongela, sukalde-jangela, komuna, bainugela, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitsua eta egoera ezin hobean. ☎ 618 25 93 43/943 03 35 63

### ALOKAIRUA

- Benidorm-en apartamentua alokatzen da. Zentroan. ☎ 650 55 70 77
- Etxe adosatua alokatzen da Alcoceberren (Castellon) ekaina, uztaila eta iraila. Igerilekua, hondartzatik 200 metrora. Gune oso lasaia. ☎ 680 18 39 07
- Pisua alokatzen da Torreviejan. Igerilekuarekin eta hondartzatik 600 metrora. ☎ 628 58 45 35
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibar edo Eibarren. ☎ 690 701 118
- Apartamentua alokatzen da Mallorkan. ☎ 645 82 93 45 (Aitor)
- Pisual alokatzen dut Donostian udan. Ondarretatik 10 minutura. 2 logela. ☎ 943 377 292 (21:30-22:30)
- Emakume batek bere etxean beste emakume bat hartuko luke alokairuan. Gela komunarekin, eta sukaldea. ☎ 943 74 16 71

## [ SALEROSKETAK ]

- Saloia salgai Mexikar estilora. Armairuak, mahaiak, taberna, bi sofa... ☎ 943 19 80 62
- Seat Leon Sport 110 cv. salgai. 4 urte, 100.000km. Salmenta premiazkoa, prezio oso onean. CD kargadorea, klimatizadorea, 4 airbag, portaeskia... ☎ 645 007 465 (iñaki)
- KTM 450 SX motorra salgai. 2003. urtekoa. Gutxi erabilia, transmisio eta errubera berriak, argiarentzat irteera, extrak. 4.900 euro. ☎ 678 587 867
- KTM 250 EXC motorra salgai. 2002. urtekoa. krosseko eskapea eta depositoa. 2 urtetan 200km. 4.000 euro. ☎ 678 587 867
- Bi piragua salgai, erremuekin. Biak 500 eurotan. ☎ 676 33 87 43 (Iñaki)
- Silver Cross haur aulkia salgai. Berria. 200 euro. ☎ 943 74 01 94
- Peugeot 306 Style Break 1.9 TD familiarra salgai. 1999. urtekoa. ☎ 645 007 465 (Iñaki)
- Zaldiak salgai. ☎ 670 23 52 54
- Hyundai Coupe autoa salgai. SS-3755AX ☎ 943 74 24 26

## [ GARAJEAK ]

- Garaje itxia salgai Madalako etxe berrietan. 28m$^2$. ☎ 646 50 28 66
- Garaje itxia salgai Pista Beltzean. ☎ 943 74 27 78
- Trenbide kalean garaje itxia alokatzen da. Goiko solairuan. ☎ 943 74 01 77
- Garajea salgai Ermuaranbiden. ☎ 943 74 35 78
- Garajea salgai Urasandin. ☎ 943 74 07 26 (21:00-22:00)

## [ BESTERIK ]

- Arrillaga kalean poltsa galdu nuen ume jantziekin. ☎ 943 74 14 52



Zerbitzaria behar da irekitzear dagoen irish pub batean lan egiteko.
Tel.: 619 34 55 58

Malape taberna
orain astegunetan

San Frantzisko, 60
tel.943 74 19 43

# [ZORIONAK]



Zorionak **Alba** bihar 3 urte beteko dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Angelen partez.



Zorionak **Maialen** hilaren 6an 9 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta anaia Aritzen partez.



Zorionak **Iker** ekainaren 5ean bi urte egingo dituzulako. Ama, aita eta bereziki, Ianireren partez.



Zorionak **June** bihar, ekainak 4, 3 urte egingo dituzulako. Patxo potolo bat etxeko guztien partez.



Zorionak **Asier** domekan 2 urte egingo dituzulako. Etxekoen eta lehengusu guztien partez.



Zorionak **Josu Casta** urteak egin zenituelako. Judith-en partez.



Zorionak **Asier** ekainaren 2an urte bat egin zenuelako. Muxu handi bat familiakoen eta arrebaren partez.



Zorionak **Jone** ekainaren 2an 7 urte egin zenituelako. Etxekoen partez bihotz-bihotzez.



Laster bost urte, maitxia! Zorionak **Paulo** eta laztan pila bat.



Zorionak **sorgintxo!** ondo pasa igandean eta muxu handi bat ikastolako laguntxoen partez.



Ailegau jatzu eguna, **Joane!** bihar 4 urte, sakukada bat musu, eta atximurkada bat Saratxoren partez.



Pilar Ikastetxeko Haur Hezkuntzako irakasle eta ikasle guztion partez zorionak **Javier Castro**.



Zorionak **Beñat** eta **Amets** zuen 3. urtebetetzean. Ikastolako lagunen, etxekoen eta bereziki, aitxitxa eta amamaren partez.



Aupa Reala eta aupa Athletic! Zorionak **Mendaroko hirukoteari**.

Zorionak **Vicente Caro** amatxo eta AMANDAren partez.

Zorionak **Mikel Olaizola "Uztapide"** ekainaren 2an 14 urte bete zituelako eta Gipuzkoako Idatzizko Bertsolari Txapelketako txapelduna izan delako. Lagunen partez.

Debegesa. Deba Behako Garapen Ekonomikorako Elkartea. Sociedad para el Desarrollo Económico del Bajo Deba

EUSKO JAURLARITZAKO JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILAK SUBENTZIONATUA ETA EUROPAKO GIZARTE FONDOAK KOFINANTZIATUA

ENPRESAK ERATZEKO OINARRIZKO IKASTAROA

*NEGOZIO BAT ERATZEKO ASMOA DUTEN EMAKUMEEI ZUZENDUA*

- Presentziazko Formakuntza (54 ordu)
- Pertsona bakoitzarentzako aholkularitza

HASIERA EGUNA: Ekainak 13
IKASTAROAREN ORDUTEGIA: 9:30-13:30

Europa Gizarte Fondoa — Fondo Social Europeo

EUSKO JAURLARITZA — JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA — GOBIERNO VASCO — DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

IZENA EMAN ETA INFORMAZIO GEHIAGO JASOTZEKO
Debegesa. Azitaingo Industrialdea, 3-bis. 20600 EIBAR - Tfnoa.: 943 820 110 (Vanesa Hortas)
e-maila: vanesa@debegesa.com - www.debegesa

# Zerbitzuak

## [ OKINDEGIA ]



5 igandea DOÑA MERCEDES

## [ FARMAZIAK ]

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 3 | Etxeberria *(Errosario)* | Etxeberria |
| 4 | Yudego | Ibañez |
| 5 | Ibañez | Ibañez |
| 6 | Bidasolo | Bidasolo |
| 7 | Etxeberria *(Santa Ana)* | Etxeberria |
| 8 | Fernandez | Fernandez |
| 9 | Yudego | Yudego |
| 10 | Zabaleta | Zabaleta |

**KANPOKO FARMAZIAK**

**IBAÑEZ**
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

## [ TELEFONOAK ]

| **OSASUNA** | |
|---|---|
| Anbulatorioa | 943 03 26 10 |
| Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| Planning-a | 943 74 29 50 |
| Alkoholiko Anonimoak | 943 74 03 85 |
| D.Y.A (anbulantzia) | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 74 38 64 |
| Mendaroko Ospitalea | 943 03 28 00 |
| Odol Emaileak | 943 74 39 36 |

| **UDALA** | |
|---|---|
| Euskara Zerbitzua | 943 74 43 66 |
| Kultura Zerbitzua | 943 74 21 58 |
| Hirigintza | 943 74 43 84 |
| Epaitegia | 943 74 16 30 |
| Haziena | 943 74 44 14 |
| Mendaroko Udala | 943 03 32 82 |
| Ongizate zerbitzua | 943 74 10 08 |
| Udaletxea | 943 74 10 50 |
| Udaltzaingoa | 943 74 13 94 |
| Debemen | 943 74 40 67 |

| **GARRAIOAK** | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak. | 943 74 04 42 |
| PESA (Eibar) | 902 10 12 10 |
| Taxi geltokia | 943 74 08 98 |
| Bizkaibus | 902 222 265 |

| **BESTELAKOAK** | |
|---|---|
| BARREN astekaria | 943 74 41 12 |
| Elgoibarko Izarra | 943 74 16 26 |
| Kiroldegia | 943 74 44 15 |
| Kontsumo Bulegoa | 943 74 30 88 |
| Liburutegia | 943 74 35 25 |
| Musika Eskola | 943 74 21 45 |
| Mintxeta | 943 74 43 15 |
| Parrokia | 943 74 08 42 |
| Postetxea | 943 74 15 47 |
| Gazte Informazioa | 943 74 14 61 |
| KZ gunea | 943 74 88 28 |

| **ADINEKOEN ETXEAK** | |
|---|---|
| San Lazaro Egoitza | 943 74 02 96 |
| Zaharren Biltokia | 943 74 05 26 |
| Eguneko Zentroa | 943 74 45 65 |

| **IKASTETXEAK** | |
|---|---|
| Haur Eskola | 943 74 21 41 |
| HHI (EPA) | 943 74 08 80 |
| Herri Eskola | 943 74 08 79 |
| I.M.H. | 943 74 41 32 |
| Institutua • Arreiturre | 943 74 80 19 |
| •Ezenarro (Meka) | 943 74 80 19 |
| Ikastola | 943 74 44 41 |
| Pilar Ikastetxea | 943 74 13 31 |

## [ AUTOBUSAK ]

**ELGOIBAR - DONOSTIA**
Astegunak:
7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40
Larunbatak:
7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00
Igandeak eta jaiegunak:
9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40
***Pesa: 902 10 12 10***

**DONOSTIA - ELGOIBAR**
Astegunak:
6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.
Larunbatak:
8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45
Igandeak eta jaiegunak:
12:30, 17:30, 19:30, 20:45.
***PESA: 902 10 12 10***

**ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA**
Astegunak:
6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.
Asteburuak eta jaiegunak:
7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.
***EUSKOTREN: 943 74 04 42***

**MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR**
Astegunak:
6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.
Asteburua eta jaiegunak:
7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
***EUSKOTREN: 943 74 04 42***

**LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK**
***EUSKOTREN: 943 74 04 42***

**ELGOIBAR-DEBA**
1:05, 2:35, 4:35, 6:05

**DEBA-ELGOIBAR**
12:10, 1:55, 3:40, 5:25

**ELGOIBAR-EIBAR**
12:25, 2:10, 3:55, 5:40

**EIBAR-ELGOIBAR**
1:00, 2:30, 4:30, 6:00

## [ 3 BARIXAKUA ]

**19:00 HERRI ESKOLAKO JAIALDIA**
Herriko Antzokian

**19:15 KONTZERTUA**
Aitor Nova sasofoi jolea eta Loreto Aramendi pianu jolea

## [ 4 ZAPATUA ]

**10:00 IGERIKETA EGUNA**
Olaizaga Kiroldegian
Infantil, alebin, benjamin eta aurrebenjaminn mailak
Antolatzailea: E. Igeriketa Taldea

**10:30 ORGANU EMAILEEN MAHAIA**
Plaza Handian
Antolatzailea: ALCER

**11:30 PLAZARATZE EGUNA**
Plaza Handian
Antolatzailea: Herri Eskola

**16:00 BILBOKO MANIFESTALDIRA IRTEERA AUTOBUSEZ**
Leloa: "Orain herria, orain bakea"
Irteera: Plaza Handitik
Izen emateak: ohiko tokietan

**16:30 SAN PEDROKO BOLO TXAPELKETA**
Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketaren 8. jardunaldia
San Pedroko bolatokian

**21:00 ARRANTZA TXAPELKETA**
Deban
Antolatzailea: La Union Elkartea

**24:00 ROCK KONTZERTUA**
Taldea: "Absit"
Madalan

## [ 5 DOMEKIA ]

**12:00 EKO ASTEA**
Loreak banatzea doan; Deba ibaiari buruzko mural lehiaketa, urari buruzko antzerkia eta Deba ibaiari buruzko ekojokua Plaza Handian
Antolatzailea: Debegesa

**12:30 FINALISTA EGUNA**
Domina banaketa
San Pedron
Ondoren bazkaria

**19:00 GELATXO TALDEAREN KONTZERTUA**
Plaza Handian

## [ 7 MARTITZENA ]

**21:00 INAZIO IRIONDORI ONGI-ETORRIA**
Plaza Handian

## [ 9 EGUENA ]

**10:00 "PATAGONIA" DIAPOSITIBA EMANALDIA**
Kultur Etxeko hitzaldi gelan
Hizlaria: Jose Ramon Agirre

## [ 10 BARIXAKUA ]

**22:15 "NATHALIA" ABESLARIAREN KONTZERTUA**
Herriko Antzokian
Sarrera: 6 euro (aurrez salgai Pitxintxun)



## ZINE KARTELDEGIA

**ELGOIBAR** HERRIKO ANTZOKIAN

**«Reinas»**
3, barixakua: 22:15
4, zapatua: 19:30-22:15
5, domekia: 19:30-22:15
6, astelehena: 22:15
**"La interprete"**
11, zapatua: 19:30-22:15

**EIBAR,** UNZAGA
**«Cosas que hacer antes de los 30»**
3, barixakua: 19:30-22:15
4, zapatua: 17:00-19:30-22:15
5, domekia: 17:00-19:30-22:15
6, astelehena: 19:30-22:15
7, martitzena: 19:30-22:15
8, eguaztena: 19:30-22:15

**EIBAR,** RIALTO
**«Star Wars 3»**
3, barixakua: 19:30-22:15
4, zapatua: 17:00-19:30-22:15
5, domekia: 17:00-19:30-22:15
6, astelehena: 19:30-22:15
7, martitzena: 19:30-22:15
8, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

## SINOPSIAK

### «Reinas»



Zuzendaria: Manuel Gomez Pereira
Antzezleak: Veronica Forque, Carmen Maura, Marisa Paredes.

Bost emakume, zein baino zein eszentrikoagoak dira filme honetako protagonistak. Guztiak dira amak, modernoak eta denek dituzte seme ederrak. Ezusteko batek aldatuko ditu guztien bizitzak, historiako gayen arteko lehen ezkontzan parte hartzear daude beraien semeak eta bertan ezagutuko dute elkar bost emakumeok. Bidea ez da horren erraza izango, ordea, eta oztopo eta aurreiritzi asko gainditu beharko dituzte bidean. .



**1940**. urte inguruko erretratu hau **Anjel Arozenak** laga digu. Argazkian ageri direnak San Antolin auzoko bizilagunak dira. Egun honetan, bazkaria egin zuten Don Inazio Aldasoro Terratenienteari ermita erosi ziotela ospatzeko. Gogora ditzagun zeintzuk diren talde honetan ageri direnak, aipatu beharra dago Anjel Arozena bera dela bizirik dagoen bakarra:
Goian, ezkerretik eskumara: **Aquelino Barrenetxea, Jose de Agarre, Batista Galarraga, Patxi Uria , Santi Agirregomezkorta, Nikolas San Martin, Tomas Etxabe, Pedro Etxabe.**
Bigarren ilaran, ezkerretik eskumara: **Pedro (aguazila), Jose Mari Mujika, Manolo Juaristi, Sebastian Arrieta, Marcos Arregi, Victor Usatorre eta Anjel Arozena.**
Hirugarren ilaran, ezkerretik eskumara: **Jose Mari Zabala, Jose Arizaga, Migel Juaristi, Juan Jose Bergaretxe, Tomas Ansola, Nikolas Arrieta, Esteban Etxaniz, Teodoro Barrenetxea eta Elias Elorza.**

---



**ESKERTZA**
2005eko maiatzaren 27an, 78 urte zituela hil zen
*Purificación Unamunzaga*en sendiak,
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





**ESKERTZA**
2005eko maiatzaren 25ean, 64 urte zituela hil zen
*Simon Urain Arron*aren anai-arrebek,
koinatu-koinatek, bilobek eta gainerako sendi osoak,
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ZABALA
AROZTEGIA

- Erreformak
- Gremioen koordinazioa
- Sukalderako armairuak
- Neurrira egindako armairuak
- Horma armairuak
- Sarrailak
- Enbalaiak






Errosario kalea, 4 behea (Bulegoa) • Deba kalea, 16 (Lantegia) • Tel.: 943 74 03 96 • Faxa: 943 74 73 85

AZKEN ETXEBIZITZAK salgai

Residencial Mirador Santa Klara




NEINOR **Azkoitia**
Julio Urquijo Etorbidea, 10
20.720 AZKOITIA
✆ 943 852 411 - 943 317 511

- *4 logelako duplexak behekalde estaliarekin*
- *Terraza eta lorategi handiak. Garaje itxiak. Leku eguzkitsua hegoaldera begira eta bista panoramikoak.*

# Gremioen GIDA

## Aroztegiak

**Biena**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

**Etxekit**
Erreformak-proiektuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

**Garcia**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

**Imar**
Erreformak
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

**Lodoso**
Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

**Soraluze**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

**Ulazia**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

## Isolamenduak

**Glas Control S.L.**
Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94

## Iturgintza, berogailua, gasa, eguzki energia eta klimatizazioa

**Ongi**
Olaso Poligonoa,
15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

**Pagoaga**
San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

**Pagoerrota**
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44
☎ 659 33 43 23

**Tellabide**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62
☎ 607 75 50 62

**Zaldua**
Urasandi, 26
☎ 943 74 05 30

**Zubizarreta instalazioak**
Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89
☎ 650 58 61 44

## Igeltseritza

**Antonio Markez**
Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

**E. Arandia**
Urasandi, 17
☎ 605 70 52 04

## Elektrizitatea

**Aramar**
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

**Azpeleta**
San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

**Urzelai**
Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76

## Pinturak

**Biok dekorazioa S.L.**
Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

**Ipintza**
Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

## Indusketa lanak

**Lekunberri indusketak**
Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98
☎ 629 42 56 32
koldolekunberri@hotmail.com
www.excavacioneslekunberri.com